

# Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran: emaitza gehiago

*Oihana Lujanbio, UPV/EHU*

## **I. SARRERA**

Artikulu honetan egiten ari naizen tesiaren zati bat azalduko dut. Tesiak bere helburuen artean ditu bariasionismoaren metodologia euskaran aplikatzea. Hori da, hain zuzen ere, «hizkuntza-aldakortasuna» terminoak lan honetan adierazten duena. Hizkuntzan gaur egun gertatzen ari den aldaketa Labov eta haren jarraitzaileen (Labov, 1972; Haddican, 2005; Moreno Fernández, 1994; Tagliamonte, 2007 eta 2012; Trudgill, 2002) metodologiaren bidez aztertuko da, eta emaitzak estatistikoak izanen dira. Gaur egungo aldaketa ikertzeko, euskara batuaren eta euskalkien arteko elkarrenergina hartuko da kontuan. Horretarako, errealitate euskaldun eta berdintsuen arteko konparaketa egingo da, diferentziarik balego, arrazoietan sakontzeko. Tesiak inguru euskalduneko herri batzuk aztertuko ditu Nafarroa ipar-mendebalean. Lan honetan, esan bezala, zati bat azalduko da, Goizuetakoa<sup>123</sup>.

Goizuetako hizkuntza-aldakortasunari buruz beste artikulu bat idatzi dut aurretik (Lujanbio, 2012). Lan horretan gizarte-aldagaien arabera, hiztunen hizkuntza-joerei buruz hipotesiak egin eta zenbateraino bete ziren aztertu nuen. Ordukoan, gizarte-aldagai batzuk nabarmendu ziren, hipotesiak hizkuntza-aldagai gehienetan bete zirelako. Hauek dira: *adina, solaskidea, ikasketa-maila, Goizuetakoekin harreman-maila, eta erdialdekoekin harreman-maila*. Espero bezala, gazteek gutxiago erabili zituzten bertako hizkuntza-ezaugarriak, eta berdin Goizuetakoekin harreman-maila apala zuten hiztunek eta erdialdeko hiztunekin harreman-maila altua zutenek. Hiztun berberak erdialdeko euskaraduna zen elkarrizketatzailearekin hitz egin zutenean ere, gutxiago erabili zituzten bertako formak. Oraingo artikuluan gehitu dena da, batetik, aztertu ditudan hizkuntza-aldagaien azalpena, bestetik, elkarrizketa-egile berberekin grabatutako corpusa bikoiztu da eta, azkenik, emaitzak estatistikoki eta grafiko bidez aztertu izana.

---

123. Lan hau EHUko euskarazko tesia egiteko diru-laguntzari eta Espainiako Gobernuo Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioiko diru-laguntzari (FFI2012-33190 proiektua) esker egin dugu.

Ikerketa-lan honen galdera nagusia hauxe da: baturako berdintze-prozesua antzekoa al da herri euskaldun horietan? Zergatik? Eta hipotesi orokorra, batuak eragindako aldaketak tikiak direla baldintza batzuk betetzen direnean eta handiagoak betetzen ez direnean. Baldintzak hauek dira:

- Galera demografikoa egotea (beste aukerak lirateke demografia mantentzea edo igotzea). Hemen ulertzen da bertakoak izatea biztanle gehienak; kanpoko asko ez delako etortzen, eta bertakoak joaten direlako dago galera demografikoa.
- Bertako hizkeraren gaineko kontzientzia izatea. Alegia, bertako hiztunek hizkera berezia dutela konturatzea, gainerakoetatik nolabait bereizten dena.
- Bertako hizkeraren gaineko kontzientzia positiboa izatea. Kasu honetan, beren hizkera gustuko dute bertakoek.

Aztergai ditugun herriak antzekoak dira gauza batzuetan (oso euskaldunak dira, biztanleen % 90 baino gehiago da euskaldun, tikiak eta nafarrak dira, Gipuzkoarekin muga egiten dute eta hangoekin harreman asko dute), baina desberdinak baldintza horiei dagokienez. Herri bakoitzaren egoera kontuan hartuta, euskararen aldaketaren gaineko hipotesiak eginen dira.

## 2. METODOLOGIA

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketa soziolinguistikoek (Haddican, 2005; Labov, 1972; Tagliamonte, 2007 eta 2012; Trudgill, 2002, adibidez) bi motatako aldagaiak hartzen dituzte kontuan hizkuntza-aldaketa neurtzeko: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte-aldagaiak nahiz hizkuntza-aldagaiak. Bien arteko zeinetaz ari garen argi izateko, hizkuntza-aldagaiak «aldagaiak» izendatuko ditugu eta gizarte- nahiz hizkuntza-aldagaiak «eragileak». Ikerketa batean eta bestean aztertzen diren aldagaiak eta eragileak diferenteak izan daitezke. Adibidez, ikerketa soziolinguistiko guztiek aztertzen ez dituzten etnizitatea, arraza eta gizarte-sareak aztergai dituzte Milroy eta Gordonek (2003).

Metodologia honen berezitasuna da estatistika erabiltzen dela hizkuntzaren aldaketa aztertzeko. Eragiketa estatistikoak egiteko programak erabiltzen dira, gure kasuan, Rbrul izenekoa (R erabiliz sortua dena). Programa horren bidez, *mixed generalized linear models* deitutako estatistika-eragiketak egiten dira eta adierazgarritasuna kalkulatu da, gure kasuan, 0,05ekoa (Field *et al.*, 2012; Johnson, 2009; Paolillo, 2002). 3.1. puntuan gehiago hitz egingo dugu horretaz.

Metodo kuantitatiboaz gain, kualitatiboa ere erabiliko da gure lanean. Batetik, hainbat analisi kualitatibo eginen dira; adibidez, hiztunarentzat bere hizkuntzaren zer ezaugarri diren markatuak eta horrek erabileran zer eragin duen aztertuko dugu. Bestetik, mota honetako ikerketa soziolinguistikoetan erabiltzen den elkarrizketa-

modua erabili dugu hemen ere (Tagliamonte, 2007). Elkarrizketa gidatua izan da eta gidoiaren helburua elkarrizketatzaileen eta elkarrizketatuen arteko solasa erraztea eta elkarrizketatuen datuak eskuratzea izan da. Elkarrizketa-egilea eta lekukoa bakarrik egotea bilatu da, eta hala gertatu da ia elkarrizketa guztietan. Hizkera eroso, arrunta eta libre lortzeko galderak egin dira, norberaren eta herriko bizimoduaren gainekoak. Elkarrizketa soziolinguistikoetan egin ohi den bezala, gai orokorragoetatik hasi gara (jaiolekua, bizilekua, eskola, lana...) eta iritzia eskatzen duten galderak bukaerarako utzi ditugu (aukera izanez gero, non bizi nahiko luketen, herria nola hobetuko luketen, hikari buruzko iritzia...). Horrela, hiztunaren bizipenak kontatzen dituzten testu biziak lortu ditugu, eguneroko hizkera islatzen dutenak. Galdetegiaren bukaeran, hizkuntza bera bihurtu da elkarrizketagai. Bukaeran egin dira hizkuntzari buruzko galderak nahita, hiztunaren arreta hizkuntzara joaten bada ere, horrek elkarrizketa guztian eragin ez dezan.

Elkarrizketa bakoitzetik 30 minutu transkribatu eta erabili ditugu; beraz, guztira, ia 10 orduko corpusa dugu. Transkripzio fonemikoa erabili da (/edan/) eta ez fonetikoa ([eðan]), sortzea eta irakurtzea errazten duelako. Helburu berarekin, ortografia eta puntuazio-modu estandarrek erabili dira eta, beraz, *h*-a gorde da, Goizuetan hasperena ahoskatzen ez bada ere. Azken batean, bi hauen arteko oreka bilatu da: hizkuntza-analisiak egoki egiteko nahikoa zehaztasun edukitzea, eta irakurtzeko eta transkribatzeko erlatiboki erraza izatea (Tagliamonte, 2006: 54). Grabaketak 2008ko martxoan eta apirilean eta 2010eko azaroan eta abenduan egin dira.

Transkripzioak behar ditugu hizkuntza-aldagaiak bilatzeko eta bilaketa programa informatiko baten laguntzaz egin dugu: *Simple Concordance Program 4.09*. Era horretako programa asko daude, behar ditugun itemak bilatzen laguntzen dutenak. Dena den, batzuetan behar ez direnak ere bilatzen dituzte eta, hizkuntza-aldagai batzuetan, ez dute asko laguntzen. Horregatik, kasu batzuetan, guk egin dugu bilaketa testuan zehar. Bilaketa egin ondoren, bilatutako adibideak taula batean jartzen ditugu, eta bertan bakoitzak aztergai diren gizarte-eragile eta hizkuntza-eragileetatik zein betetzen dituen adierazten da.

### 3. HIZKUNTZA-ALDAGAIAK ETA GIZARTE-ERAGILEAK

«Hizkuntza-aldakortasuna» dagoela diogunean, hiztun berberak gauza bat modu batean baino gehiagotan esan dezaketela adierazi nahi dugu. Hizkuntza-aldagaia trukagarri diren bi aldaera edo gehiagoren multzoak osatzen du, esanahian diferentziarik ez duten aldaerek. Ondorengo hitz pare bakoitza hizkuntza-aldagai bat da: *yoan/joan*, *hemendikan/hemendik*, *izanen/izango*. Goizuetako adibideak dira horiek eta pare bakoitzean, bigarren aldaera berriagoa da aurrenekoa baino. Horrela, *joan*, *hemendik* edo *izango* erabiltzen duen hiztuna berritzaileagoa dela esango dugu, eta *yoan*, *hemendikan* edo *izanen* (*yon* eta *izain* erabiliko dute goizuetarrek)

erabiltzen duena gordetzailleagoa. Hizkuntza-aldagaien azalpen gehiagorako jo 4.2. atalera.

Hizkuntza-aldagai horietan eragiten duten faktoreak dira gizarte- eta hizkuntza-eragileak. Gizarte-eragileek hizkuntzatik kanpoko eraginak adierazten dituzte eta hizkuntza-eragileek hizkuntza barruko eraginak. Artikulu honetan gizarte-eragileen eragina azalduko da, eta gure ikerketa-lanean interesgarrienak izan direnak bakarrik. Bariazionismoaren korrontean funtsezkoak diren gizarte-eragileak landu ditugu, eta jarraian azalduko dugun zerrenda horri gure aztergairako interesgarri iruditu zaigun azkena gehitu diogu (*harremana erdialdeko euskararekin*).

### 3.1. *Hiztuna*

Hiztun bakoitzak bere hitz egiteko modua du, bere hizkuntza-joerak ditu. Bariazionismoan pertsonaren barne-aldakortasun hori ere kontuan hartu nahi izaten da eta, estatistikaren garapenak aurrera egin duen heinean, soziolinguistak ere jakintza hori beren lanean txertatzen saiatu dira. *Mixed generalized linear models* deitutako estatistika-eragiketen bidez, hiztuna bezalako aldagai aleatorioak (*random variables*) gainerako aldagai finko deiturikoekin (*fixed variables*) batera azter daitezke, hau da, adin, genero, eta abarrekin batera. Eta horren bidez, antzematen diren hizkuntza-joerak orokorrak diren edo hiztun gutxi batzuek eragin dituzten ikus daiteke.

### 3.2. *Generoa (emakumezkoa / gizona)*

Gizarte-eragile hau aztertzea ohikoa da azterketa soziolinguistikoetan (Haddican, 2005, Labov, 1972, Milroy eta Gordon, 2003, Tagliamonte, 2007 eta 2012, Trudgill, 2002) eta ikerketa honetan ere generoarekin gertatzen dena aztertu nahi dugu: mendebaleko teoria soziolinguistikoan ohikoa den bezala, gizona bezala, gizona bezala? Emakumezko gazteen eta adinekoen artean bada diferentziarik hizkuntza-aldagaiak erabiltzeko orduan? Eta gizona kasuan?

### 3.3. *Adina (gaztea / adinekoa)*

Adinak beste gizarte-eragileen eraginak islatzen ditu eta, horregatik, ez da batere aldagai sinplea. Arlo honetako azterketa soziolinguistiko guztietan hartzen da kontuan, baina adin-multzoak beti ez dira berberak. Ikerketa honetan bi multzo bereizi dira: gaztea (20-35 urte bitartekoak) eta adinekoak (60 urtetik goitikoak). Adinekoen artean adin-tarte diferentekoak ditugu era berean: 60-65 urte bitartekoak eta 80tik 90era bitartekoak.

Adin-tarte hori arrazoi batzuegatik hartu dugu: batetik, 20 urte baino gazteagoak ez dute beren ikasketa-maila finkatua; adin batetik aurrerakoak, berriz, hitz egiterakoan arazo gehiago izan ditzakete (ahoskera, memoria...) eta horregatik, ez ditugu kontuan hartu gaztetxoak (20 urtetik behekoak) eta oso adinekoak direnak (90etik goitikoak). Talde gaztea eta adinekoa aukeratu ditugu diferentzia

bilatu eta aztertu nahi izanagatik. Multzo bakoitzean aztertu beharreko pertsona kopurua zehazteko, udaletako erroldak erabili dira.

### 3.4. Ikasketa-maila (*altua / ertaina / apala*)

Aldagai hau ere azterketa soziolinguistiko askotan ikertu ohi da. Hiru ikasketa-maila bereizi ditugu: ikasketa-maila *apala*, lehen hezkuntza bitarteko ikasketak dituztenak (garai bateko eskola-graduatuak lortu gabeak); ikasketa-maila *ertaina*, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzakoak; eta ikasketa-maila *altua*, unibertsitate-mailakoak. Horretarako, erroldako datuak multzoka bildu ditugu, modu honetan:

IKASKETA-MAILAK	LORTUTAKO TITULUA
Maila apala	Ez daki irakurtzen Eskola-graduatuak baino gutxiago Ikasketarik gabe Lehen hezkuntza bete gabe
Maila ertaina	Eskola-graduatuak Oinarrizko batxilerra Lanbide-heziketa I Lanbide-heziketa II Batxilerra BBB, goi-mailako batxilerra Erdi-mailako ikasketak
Maila altua	Unibertsitatean diplomatuak Ingeniari teknikoak, arkitektoak Unibertsitatean lizentziatuak Goi-mailako ikasketak Doktoretza

**1. taula. Ikasketa-maila bakoitzak bere barnean dituen tituluak.**  
**Iturria: Goizuetako Udal Errolda (2010).**

Espero genuen bezala, adin-multzo gaztean eta zaharretan ikasketa-maila bakoitzeko proportzioak aldatu egiten dira: adibidez, adinekoen artean ikasketa-maila apalekoak asko dira, eta gazteen artean ez dago bakarrik ere. Zehazki, eskola-graduaturik gabeko 111 biztanle daude adinekoen artean (adin hortakoen erdia eta biztanle guztien % 14). Proportzio hauek kontuan hartuz egin dugu langiketa eta, adibidez, horregatik ez dago ikasketa-maila apaleko gazterik.

### 3.5. Harremana erdialdeko euskararekin (*altua / ertaina / apala*)

Gizarte-eragile hau aztertzeko arrazoia da aztertuko ditugun herritarrek harreman handia dutela erdialdeko euskararekin<sup>124</sup>. Goizuetako kasuan adibidez, goizuetar gazte eta heldu asko dago gaur egun erdialdeko *euskaldun*ekin harremanetan, dela

124. Erdialdeko euskara Zuazoren (1998) sailkapena arte gipuzkera deitutakoa da. Gure lanean, euskara batuarekiko harremana ere gizarte-eragile honetan sartu dugu.

eskolan, dela lanean. Gaur egun, gazteen erdia joaten da Gipuzkoara ikastera eta beste erdia Leitzara, eta aurreko urteetan, Gipuzkoara jo dute. Lanera ere kanpora ateratzen dira gehienak, normalean Gipuzkoara (Hernani, Donostia, Astigarraga, Oiartzun...) eta gutxiagotan Leitzara eta Iruñea aldera. Orain hamarkada batzuk, berriz, egoera diferentea zen, ez baitzen hainbesteko erraztasunez mugitzen jendea. Horregatik, gazteen eta adinekoen artean joera diferenteak aurkituko ditugula uste dugu. Errealitate horrek hizkeran eragiten duela uste dugu eta horregatik aztertu nahi izan dugu aldagai hau.

Informazio hori erroldan ez dagoenez, galderak egin dizkiegu hitzunei, bizitzako arlo bakoitzean dituzten harremanei buruz eta horietan erabiltzen duten hizkuntzari buruz: ikasketak, lana, bizilekua, gurasoak, lagunak, bikotea... Horretaz gain, egunean zehar ikusi eta entzuten duten komunikabideei buruz galdetu diegu.

Gizarte-eragile bakoitzean (*hiztuna* kenduta), aurreneko aukerak aldakortasun gehien erakustea espero dugu, eta ondorengoak gordetzailleagoak izatea<sup>125</sup>. Horrela, emakumezkoek, gazteek, ikasketa-maila altua dutenek eta erdialdekoekin harreman-maila altua dutenek hizkuntza-aldaera berriena erabiliko dutela espero dugu, eta gizonezkoek, adinekoek, ikasketa-maila apala dutenek eta erdialdekoekin harreman-maila apala, aldaera zaharragoa. Hipotesi hauek herrika aztertuko ditugu.

Labur esanda, horiek dira nire ikerketa-lanaren puntu nagusiak. Lanaren lehen zatia dago egina, metodologia aukeratu eta erabiltzen ikasteaz gain, lehen herria aztertu eta landu dugu. Horrela, bada, artikulua honetan Goizuetako azterketaren emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira.

#### **4. AZTERTUTAKO HERRIA: GOIZUETA**

Nafarroa ipar-mendebalean dagoen herri honek 763 biztanle ditu gaur egun (2013ko errolda). Demografia galera handia egon da bertan; 1975. urtetik biztanleen % 40 inguru galdu da.

Tesi-lan honetan aztertuko diren herrien ezaugarri da euskara-ezagutza altua izatea, eta halaxe da Goizuetako kasuan ere. Bereziki euskara-ezagutza altua duen herria da, % 95ekoa 2012an. Euskararen erabilera ere altua da bertara doanak ikus dezakeen bezala. Hala erakutsi zuten 1991-2002ra bitartean bertako euskara zerbitzuak egindako kale-neurketek ere: % 80-95 bitartekoa zen erabilera. Bertako euskararen egoeraren deskribapenarekin bukatzeko, bi euskalkiren arteko trantsizio-eremua dela adieraziko dugu, nafarreraren eta erdialdeko euskararen artekoa hain zuzen.

Goizuetarako egin dugun hipotesia hau da: Goizuetako euskaran aldaketa ez da oso handia. Aztergai ditugun baldintza guztiak betetzen ditu, eta horregatik hizkuntzan gordetzaille izatea espero dugu:

<sup>125</sup>. Aurreneko gizarte-eragilean, *hiztuna*, hurrenkerak ez du aldakortasun-mailarekin loturarik adierazten.

- Oso euskalduna da.
- Galera demografikoa izan du.
- Bertako hizkeraren izaeraren kontzientzia du.
- Bertako hizkeraren gaineko kontzientzia positiboa du.

Herri guztietarako berberak diren hipotesiak, gizarte-eragileetan oinarrituak, hauek dira: emakumezkoek, gazteek, ikasketa-maila altua dutenek eta erdialdekoekin harreman-maila altua dutenek Goizuetako hizkerako aldaera gutxiago erabiliko dituzte gainerakoek baino (gizonezkoek, adinekoek, ikasketa-maila apala eta erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek).

#### 4.1. Lagina

Soziolinguistikaren arlo honetan joera nagusi dena erabili dugu gure ikerketan ere: zorizko laginketa eta «laginketa zentzuduna» uztartu ditugu lagina aukeratzeko garaian. Genero, adin eta ikasketa-mailaren arabera aukeratu ditugu hiztunak, gizon-emakumeak, gazteak eta adinekoak eta ikasketa-maila bakoitzekoak egoki errepresentatzeko. Denera 19 hiztun aztertu ditugu, Goizuetako gazte eta adinekoen % 5. Beheko taulak laginaren banaketa azaltzen du:

ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK	HIZTUNAK
<b>GENEROA</b>	
emakumezkoa	9
gizonezkoa	19
	19
<b>ADINA</b>	
gaztea (20-35)	9
adinekoa (60-65)	4
adinekoa (80-90)	6
	19
<b>IKASKETA-MAILA</b>	
altua	4
ertaina	9
apala	6
	19

2. taula. Goizuetako lagina.

#### 4.2. Hizkuntza-aldagaiak

Hizkuntza-aldagaiak aukeratzean, hainbat gauza hartu ditugu kontuan. Batetik, aldaketa bertako euskaratik batura edo erdialdeko euskarara egiten duten ezaugarriak bilatu dira. Horrela, bertako hizkerak euskara batutik edo erdialdeko euskaratik aukera diferentea egiten duen 17 ezaugarri aukeratu dira (2 fonologiko, 5 morfologiko, 10 lexiko). Aukera hori egiteko, maiztasun handiko ezaugarriak hartu dira kontuan, zenbat eta maiztasun handiagoko ezaugarria izan, orduan eta fidagarriagoa delako emaitza. Horretaz gain, euskalkien ezaugarriei buruzko ezagutzan, hiztunekin egindako elkarrizketa batzuetan eta ikertzailearen intuizioan oinarrituta egin da hautua. Aztertu ditugun hizkuntza-aldagaien artean, agertze-kopuru diferentea dugu: ia 1.500etik 35era bitarte. Gutxitan agertu diren hizkuntza-aldagaiak 4. taulan bereizi ditugu, eta eragiketa estatistikoak egitean kontuan hartuko dugu kopuru-diferentziak eraginik baduen.

3. eta 4. tauletan daude zerrendan jarriak Goizuetan aztertutako ezaugarriak. Aldiro, ezaugarri zaharragoa ezkerrean eta berriagoa eskuinean adierazi da. Ezaugarri horiei buruzko azalpena taulen ondoren eman dugu.

	HIZKUNTZA-ALDAGAIA	izaera linguistikoa	agertze-kop.
1	aferesia bai / ez ( <i>karri / ekarri...</i> )	fonologikoa	1481
2	/j/ edo /x/ ( <i>yan / jan...</i> )	fonologikoa	685
3	-ikan / -ik ( <i>zertikan / zertik...</i> )	morfologikoa	976
4	geroaldiko -en / -go ( <i>izain / izango...</i> )	morfologikoa	285
5	<i>izan / egon</i> lekuzko perpausetan ( <i>hemen da / dago</i> )	morfologikoa	533
6	* <i>edun / eduki</i> ( <i>dut / daukit</i> )	morfologikoa	207
7	<i>biño / baño, baiña</i>	lexiko (aldaera)	877
8	<i>eskuara / euskara...</i>	lexiko (aldaera)	357
9	<i>eztikit / eztaikit...</i>	lexiko (aldaera)	434

3. taula. Maiztasun handiagoko hizkuntza-aldagaiak.

	HIZKUNTZA-ALDAGAIA	izaera linguistikoa	agertze-kop.
10	kausatiboko -ko(t)z / -ko ( <i>delakotz / delako</i> )	morfologikoa	96
11	<i>arrunt / oso</i>	lexikoa	149
12	<i>bakotxa / bakoitza</i>	lexiko (aldaera)	35
13	<i>benpe, benpeñen, bede / behintzat</i>	lexikoa	120
14	<i>deus / ezer</i>	lexikoa	67
15	<i>gunun / giñun...</i>	lexiko (aldaera)	154
16	<i>pa(ra)tu / jarri</i>	lexiko	64
17	<i>zerbette / zeoze</i>	lexiko	83

4. taula. Maiztasun gutxiagoko hizkuntza-aldagaiak.



#### 4.2.1. Aferesia bai/ez

Hitz-hasierako hots-galera da aferesia. Nafarreran ohikoak dira galera hauek, azentu indartsuaren eraginez eta Goizuetan ere arruntak dira. Aferesiarekin batera, aferesirik gabeko formak erabiltzen dira Goizuetan (Zubiri eta Perurena, 1998: 33), forma osoak, erdialdeko euskarari eta euskara batuari agertzen direnak. Ikerketa honetan, Goizuetako hizkeraren ezaugarri berezitat aferesidun hitzak hartuko ditugu. Maiztasun handikoak izateagatik, zazpi aditz hauek aukeratu ditugu azterketarako: *ekarri/karri*, *eman/man*, *esan/san*, *etorri/torri*, *ibili/bili*, *ikusi/kusi*, *izan/zan*. Aferesia izan dezaketen hizkuntza-aldagai gehiago ez ditugu aintzat hartu. Bestetik, hizkuntza-aldagai honetan gerta daitekeen neutralizazioa saihesteko, ez dira kontuan hartu ingurune hauetako adibideak: aferesia gerta daitekeen hitzaren (*ikusi/kusi*) aurretik, aferesiaren hizki beraz bukatutako hitza (*ni*) dagoenean. Adibidez, «*ni ikusi nozo?*» moduko esaldiak ez dira aztertu. Gainerakoan, hizkuntza-aldagai guztietan, garbi entzuten ez direlako zalantzazkoak diren adibideak ere ez dira kontuan hartu.

Hona aldakortasunaren adibide gisa, bi hiztunek esandako esaldiak. Tagliamontek (2006) *super-token* deitutako adibideak dira, aztergai dugun fenomenoaren modu diferenteetan esaldi bereberetan agertzen baita:

- (1) Adibidez guk ESATEN<sup>126</sup> du «/x/arri»ri «patu» SATEN du.
- (2) Horkok TORTZEN tzian, aranaztarrak eta iantziarrak o, hoitakok ETORTZEN tzian.

Gizonezko gazte batek esandakoa da aurreneko esaldia eta adineko emakume batek bigarrena. Beraz, gazteek nahiz adinekoek, emakumezkoek nahiz gizonezkoek erabiltzen dituzte bi aldagaiak. Emaitzetan ikusiko dugu gizarte-eragile hauen eta gainerakoan arabera erabilera berdintsua den edo ez.

#### 4.2.2. /j/ edo /x/ hotsak

«y», /j/ hotsa, nafarreraren ezaugarria da eta «j», /x/ hotsa, erdialdeko euskararen ezaugarria. Hizkera formalean ere /x/ erabiltzea da joera nagusia, nahiz eta euskara batuak /j/ erabiltzea proposatu. Goizuetan oso gutxitan entzuten da /x/, hitz jakin batzuetan bakarrik, eta horregatik, /j/ hartu dugu ikerketa honetan Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat. /x/ gehienak elizarekin lotutako lexikoko euskal hitzak dira edo gaztelaniatik mailegatutakoak, jainkoa edo majoa bezala. Hala ere, testuinguru batzuetan (testuinguru formalean edo kanpoko jendearekin hizketan, adibidez), /x/ erabiltzeko joera egon daiteke eta hori da ikerketa honen bidez aztertuko duguna. Hona hemen ia *super-token* den adibidea:

- (3) Ta orduntxe JEN... YENDEA.

126. Hizki larriz adierazi ditugu adibideetako hizkuntza-aldakerak (ESATEN, SATEN...).

Badirudi hiztunak bere burua zuzendu duela, /x/ hotsa duen hitza esatera iritsi baino lehen. Adineko gizona da, kasu honetan, adibidea eman diguna, baina emakumezkoek edo beste gizarte-eragileetako ezaugarriak dituen edozein hiztunek /x/ hotsa erabiltzea posible dela uste dugu.

Hizkuntza-aldagai honetan, normalean /j/ hotsarekin ahoskatzen diren hitzak (*yan, yendea, yon...*) eta /x/ hotsaz erabiltzeko joera dutenak (*Jangoiko, jatorra* eta *jai*), biak izanen dira aztergai. Bi multzoetako hitzak ahoska daitezke /j/ edo /x/ hotsarekin, baina badirudi joera diferenteak daudela multzo bakoitzean.

Azterketa honetan ez dira kontuan hartu Goizuetan bi hotsetako batekin bakarrik erabiltzen diren hitzak, hau da, aldakortasunik erakusten ez dutenak. Horien artean daude maileguak (*ya, ayuntamiento, erlijio, juntatu, keja, majo, juntu...*), izen bereziak (*Jone, Javier, Lujanbio...*), esamoldeak (*jajai!*) eta hikako formak (*bayaiz, yuen...*), nahiz eta bestelako ezaugarri batzuk ere izan daitezkeen (*eguzkiya...*).

#### 4.2.3. Geroaldiko *-en, -in/-go*

Goizuetarrek geroaldian erdialdeko euskararen nahiz nafarreraren atzizkiak erabiltzen dituzte. Ekialdeko ezaugarria da geroaldian *-en* erabiltzea aditzoinak *-n* bukaera duenean. *-go* berriz, erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarria da eta hizkera formalean normalean erabiltzen dena, nahiz eta euskara batuak *-en* ere onartu. Ikerketa honetan, *-en* eta *-in* bukaerak hartu ditugu Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat eta, zehazki, 8 aditz hauek aztertu dira: *egin, eman, eragin, eraman, esan, egon, izan, jakin*. Adibidetzat, gizona eta emakumezko gazte hauen esaldiak ekarri ditugu:

(4) ...baton batzuk muittu IZAIN tziala (...) aber emakumek ateriko ez baliake, ze IZANGO zen mozorron taldetaz.

(5) ...SAIN nizuke, pes gutxitzen YONGO litzakela /x/endea, biztanlegoa pes gutxitzen YOIN tzela.

Gazte jendeak testuinguru batzuetan (testuinguru formaletan edo kanpoko jendearekin hizketan, adibidez) *-go* gehiago erabiltzen duela uste dugu. Emaitzetan ikusiko dugu gure usteak betetzen diren edo ez.

#### 4.2.4. *-ika(n)/-ik*

Goizuetako hizkeran, *-ik* bukaera duten kasuekin eta partitiboarekin *-ikan* atzizkia erabiltzen da, *-ik* atzizkiarekin batera. Horrela, nondik, noiztik, zergatik eta norengatik kasuekin ere ager daiteke *-ikan* (*nondikan, noiztikan, zertikan, neregatikan*), baita modu-atzizkiarekin ere (*ixilikan*). Ikerketa honetan, Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat *-ikan* hartu dugu, zaharrek ere erabiltzen dutelako eta hori delako Goizuetako hizkerari berezitasuna ematen dion ezaugarrietako bat.

Ez dago argi *-ikan* ezaugarriaren jatorria zein den. Goizueta inguruko erdialdeko hizkeretan erabiltzen da (Hernanin, Astigarragan eta Oiartzunen), baita Nafarroako eskualde batzuetan ere: Bortzerrietan eta Sunbilan erabiltzen da, baita Malerrekan, Bertizaranan eta Oronozen ere, azken horietan *-iken* formarekin bada ere (Zelaieta, 2008: 162). Bidasoa ibaian goiti iritsi den ezaugarria dela dio Zelaietak. Larraunen eta Araitz-Betelun ez da halakorik entzun (Apalauza, 2010: 356) eta berak ere Gipuzkoatik heldu dela uste du: «Irudi konplexua du, beraz, ezaugarriak; baina, gaurko erabilerari erreparatuz, badirudi Gipuzkoako iparraldetik Bidasoa aldera eta Goizueta-Leitzara, handik Basaburu Txikira, eta handik Basaburu Nagusira eta Imotza zabalduak ezaugarria dela» (Apalauza, 2010: 357).

Esana dugun bezala, Oiartzunekin harreman handia izan du Goizuetak, eta hor ere indartsu dago *-ikan* bukaeraren erabilera (Zuazo, 1997: 412). Ezaugarri honen berritasuna aipatu zuten Fraile eta Frailek (1996: 76) *nondik* eta *zerik* kasuen berri ematean, hurrenez hurren: «*-ik* atzizkia dugu nagusi. Maila txikixeagoan, eta hiztun jakin batzuen ahotatik berriz, beranduagokoa den *-ikan* atzizkia heldu zaigu» eta «*-(r)ik*, eta berriagoa den *-(r)ikan* (...)». Kasu bakanagoetan *-ikan*.

Badirudi goizuetarrak bertako ezaugarritzat hartzen duela *-ikan* eta gure ustea da zaharrek baino gehiago erabiltzen dutela gazteek. Ezaugarri honen erabileran egin duen aldaketaren berri hemen ikus dezakegu: Goizuetako hizkerari buruz egin den deskribapen osoenean, Goizuetan eta Aranon ablatiboko *-tik*, *-tikan* eta partitiboko *-rik*, *-rika* eta *-rikan* daude, baina *-gatik* bakarrik motibatiboan (Zubiri eta Perurena, 1998: 70, 117, 120, 122). Gaur egun *-gatican* ere erabiltzen da, ordea. Beraz, gure ustez, indarra hartzen ari den ezaugarria da, nahiz eta euskara batuan ez erabili. Horregatik, berezia da hizkuntza-aldagai hau, gainerakoak ez bezala, euskara batuaren joeretatik ateratzen delako. Hona emakumezko gazte baten *super-token* bat:

(6) DENETIK dao pixko bat, DENETIKAN.

*-ikan* eta *-ik* bukaerez gain, *-ika* ere erabiltzen da, gutxiago bada ere. Emaitzak kontatzean, *-ikan* bukaerakoekin batera sartu ditugu. Bildu ez ditugun *-ik* bukaeradun formak *-ikan*-ekin aldakortasunean ez daudenak dira; *-i* hizkiz bukatutako hitzekin osatutako adberbioak (*yantziak* > *yantzik*) eta *-i* hizkiz bukatutako hitzen plurala eta ergatiboa (*zaldiak* > *zaldik*).

#### 4.2.5. Kausazko *-ko(t)z/-ko*

Goizuetarrek kausazko esaldietan, beste morfema batzuez gain (*bait-*, *-eta*), *-ko(t)z* eta *-ko* erabiltzen dituzte. *-ko(t)z* nafarreran eta Ipar Euskal Herrian ere erabiltzen da eta *-ko* erdialdeko euskarari eta euskara batuan, besteak beste. Badirudi gaur egun joera dela mendebaldeko ezaugarriek ekialdekoak ordezkatzea, eta *-ko(t)z* hartu dugu Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat (Zubiri eta Perurena, 1998: 164), oinarri dialektaleko ezaugarria delako, alegia, zaharrenek erabiltzen dutena. Gazteek *-ko(t)z* oso gutxitan erabiltzen dutela uste dugu eta, beraz, Goizuetan

ordezkatzea arrunt aurreratua dagoela. Emaitzetan, gazteen eta adinduen artean, baita beste ezaugarri soziolinguistikoen artean ere, zer diferentzia agertzen den aztertuko da. Oraingoan ez dugu *super-tokenik* aurkitu, gure corpusean gazteek *-ko* bakarrik erabili dutelako eta adinekoek, erabili dutenetan, *-ko(t)z* beti edo *-ko* beti. Hona adineko bi emakumeren adibide bana (esan behar da lehenak 60 urte inguru dituela, eta bigarrenak 80ak pasata):

(7) ...ta ordun nolabatte nahi zuten ni kontrolatua euki, gaztea NITZALAKO.

(8) Oaiñ, gustora in zandu du beti, e? Miño, hala ohitzen, ohittuk GIÑALAKOTZ.

#### 4.2.6. *Izan/egon lekuzko perpausetan*

Lekuzko perpausetan *egon* aditza erabiltzea gaur egun areagotzen ari den joera da. Hizkera arruntean «*etxean nago*» maizago entzuten da «*etxean naiz*» baino. Jatorrian, lekuzko perpausetan *izan* aditza erabiltzea Ipar Euskal Herriko euskararen eta nafarreraren ezaugarria da, lehen Hegoalde guztian gehiago erabiltzen bazen ere. Badirudi joera dela mendebaldeko ezaugarriek ekialdeko hauek ordezkatzeko. Horregatik, gazteek *egon* aditza gehiagotan erabiltzea espero dugu, eta adinekoek, berriz, *izan*. Beste ezaugarri soziolinguistikoen arabera ere, zer diferentzia (aldakortasun) agertzen den aztertu nahi da.

*Adibide* gisa, adineko gizon baten, adineko emakume baten eta emakumezko gazte baten esaldiak jarri ditugu:

(9) Denak han DAUDE, DIAN pixarrak, gutxi biño. Goizutan yende asko EZTA, biño zahar asko DO.

(10) Euskal Irratin BADA, pues EOTTEN da, lehemeziko IZATEN da elkarrizketa bat, eta gero BADA oain programa bat arrunt politta.

(11) Ez, EZTIA hola... Bueno, BADAUDE igual lau-bost etxe.

Esan behar da, batzuetan nahasgarri gertatu den arren, *nola/zertan* galderei erantzuten dieten esaldiak ez direla kontuan hartu. Horrela, esaldi batzuk argiak dira baztertzeko garaian, argi baitago *non* galderari ez diotela erantzuten. Beste batzuk ez dira hain argiak, baina horiek ere ez ditugu kontuan hartu:

(12) Luinen EOTTEN tzen apopillo do, EOTTEN tzen.

#### 4.2.7. *\*Edun/eduki*

*\*Edun* aditzaren lekuan *eduki* erabiltzea erdialdeko eta mendebaleko euskararen nagusitu den ezaugarria da (Zuazo, 1998: 221-222) eta *\*edun* erabiltzea nafarreraren eta Ipar Euskal Herrian gehiago mantendu da. Hemen ere, beraz, mendebaldeko ezaugarria ekialdekoari lekua kentzen ari zaiola dirudi. Hau da, *eduki* edo *\*edun* aditzak erabiltzeko aukera dagoenean, *eduki*-ren aldeko hautua da gaur egun

nagusitzen ari den joera. Hizkera arruntean «*bizikleta bat daukat*» gisako adibideak maizago entzuten dira «*bizikleta bat dut*» tankerakoak baino.

#### 4.2.8. Arrunt/oso

*Oso* erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarria da eta *arrunt* nafarrerarena eta Ipar Euskal Herriko euskararena. Euskara batuan ere *oso* erabiltzen da, normalean, *arrunt* onartzen bada ere. Goizuetarrak *arrunt* Goizuetako hizkeraren osagaitzat hartzen du (Zubiri eta Perurena, 1998: 162), Gipuzkoan ez dutela erabiltzen badaki eta, beharbada, hitz markatutzat du.

Mendebalderagoko ezaugarriek ekialdeko hauek ordezkatzeko da joera gaur egun, eta ezaugarri honekin hori ari dela gertatzen ematen du. Dena den, gazteek ere erabiltzen dute *arrunt* (adibidea topatzea kosta bazaigu ere), eta adinekoek *oso* ere bai, gizon banaren adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

(13) Euskerak ARRUN zea zabala do, eremu zabala do, nere ustez.

(14) Artoa nahikoa, baserri ona zen. Ongi han bizittu giñan. OSO ongi.

#### 4.2.9. Bakotxa/bakoitza

*Bakoitza* erdialdeko euskararen ezaugarria da, eta euskara batuan erabiltzen dena. *Bakotxa* Euskal Herri osoan zehar agertzen da, baita Nafarroa Beherean ere, eta ez du eremu bereizi argirik osatzen. Gure aztergaietan, aldakortasun gehiago aurreikusten diegunek *bakoitza* gehiagotan erabiltzea espero dugu.

#### 4.2.10. Benpe(ñen), bede/behintzat

Hizkuntza-aldagai honek ere nafarrera eta Ipar Euskal Herriko ezaugarri baten eta erdialdeko eta mendebaleko euskararen ezaugarri baten arteko lehia erakusten du. Zehazki, *bederen* (Goizuetan *bede*) eta *behintzaten* arteko lehia da hori. *Benpe(ñen)* (*behinik behinen* forma moztua), Goizuetako ezaugarri gisa, *bederekin* batera paratu dugu; alegia, bien agerpenak batera kontatuko dira. Kasu honetan ere, *behintzat* ari da hartzen beste bien lekua, eta *behintzat* da gazteek gehien erabiltzen dutena, salbuespen gutxi batzuekin. Salbuespena hitzun bakarra izan da, gizonezkoa, eta *benpe* erabili du gure corpuseko kasu guztietan:

(15) Uain ikusten dut ongi diola, yende askok hemen bizi nahi dula iduitzen tzit, gaztek BENPE, gazte askok hemen bizi nahi dula.

(16) Guk euskera batun tarten sartzen du gehio, ta zaharrak dena goizutarrak hitzeitten dute, askok BENPE bai.

#### 4.2.11. Biño/baina, baño

Nafar euskarakoa da *biño* eta erdialdekoa *baño*. Goizuetan, normalean, *biño/miño* erabiltzen da beti. *Baño* gazteen artean erabiltzen zela iruditu zaigu, ordea,

eta aztertu nahi izan dugu. Hurrengo *super-token* honetan ikusiko dugunez, gazteek bietatik erabili dute gure elkarrizketetan, ikasketa-maila altuko neska gazte honek, adibidez:

(17) BAÑO, herriko heldu eta baserritarran arten? Eztakit. Eztut uste diferentzi haundiikan eongo denikan. Eztakit, ezno seuru BIÑO. Eztakit (...)

(18) MIÑO goizutarrak, bai. Eta ezautzen ttut, gañera, yende asko goizutarrak, o ba, kuadrillakok o familikok o ingurukok, kanpokokin askotan erdi batuaz ta dena hitzeitten dutela. BAÑO nik uste goizutarrak hitzeittea eztela, san nahi dut, berdin-berdin ulertzen ahal gittoztela.

#### 4.2.12. *Deus/ezer*

Nafarrera eta Ipar Euskal Herriko euskararen vs erdialdeko eta mendebaldeko euskararen arteko lehiaren erakusle den hirugarren eta azken ezaugarria dugu gure lexikoaren zerrendan. Goizuetan *deus* da normalean erabiltzen den ezaugarria, eta *ezer* erabiltzea oso arraroa da eta ez da Goizuetako hizkeraren oinarri dialektalaren zati. Dena den, solaskidea kanpokoa den kasuetan zer gertatzen den aztertu nahi izan dugu eta horregatik aukeratu dugu.

Aurkeztuko ditugun hurrengo bi hizkuntza-aldagaiek ere Ipar Euskal Herriarekin ikustekoa dute, baina ez dituzte bi eremu garbi bereizten. Alegia, ez dituzte mendebaldeko eta ekialdeko eremuak bereizten.

#### 4.2.13. *Eskuara/euskara, euskera*

Gehienetan, *eskuara* modukoak (*Eskual Herria, eskuarazalea...*) Nafarroako eta Lapurdiko ezaugarritzat jotzen dira eta euskera modukoak (*Euskal Herria, euskerazalea...*) Bizkaiko eta Gipuzkoako ezaugarritzat. Lekeition eta Urdiainen ere eskuara modukoak erabiltzen dituzte, baina Goizuetan erabiltzea Nafarroa eta Lapurdiko eraginarekin lotu dugu, eta ez Lekeitio edo Urdiainekin. Esan behar da Goizuetako gazteengan ez dugula *eskuararen* sailekorik topatu eta helduenek ia beti darabiltela, adineko emakumeen artean gazteenaren kasuan izan ezik (60 urte ingurukoa):

(19) Dena erderaz. Dena dena dena. EUSKERA etzen oaindikan sumatu re itten.

#### 4.2.14. *Eztikit/eztakit*

*Jakin* aditza ezezko eta galderazko perpausetan *-iki-* erroarekin agertzen da Goizuetako hizkeran (*eztikit*). Erdialdeko euskararen eta euskara batuan *-aki-* erroa da erabiltzen dena (*ez dakit*). Goizuetako aldaeratzat jo ditugu *eztikit* adizkiaren sailekoak, horiek direlako adinekoek nahiz gazteek gehien erabiltzen dituztenak. Egoera formalagoetan gazteek erro hori ez erabiltzeko joera izan dezaketela uste

dugu, hizkera formalaren eragin handiagoa dutelako. Dena den, adinekoek ere erabili dezakete *-aki-* erroa, 80 urtetik goitiko emakume honek egin duen bezala:

(20) Miño EZTAKIT, ixtorikan EZTIKIT.

#### 4.2.15. *Gunun/giñun*

Goizuetako hizkeran *gunun* adizkiaren saileko aldaerak erabiltzen dira batzuetan *giñun* adizkiaren sailekoen lekuan. Zehatzago esateko, *\*edun* aditzaren sailean, iraganaldiko pertsona pluraleran *-u-* erabiltzen da *-i-*ren lekuan, alegia, *gunu-*, *zunu-*, *zunute-* eta ez *giñu-*, *ziñu-*, *ziñute-*.

Ezaugarri honen eremuaren berri Zelaietaren lanean izan dugu: Goizueta inguruko Nafarroako eskualdeetan erabiltzen dela irakurri dugu bertan. Bere liburutik ateratako aipu honi esker, hizkuntza-aldagai honetan Goizueta Bortzerriak, Sunbilla eta Doneztebe-Donamaria eremuarekin batera doala jakin dugu (2008: 148):

*\*edun* aditzaren iraganeko sailean, Bortzerrietan maiz aski aditzen diren *zunun* ‘zenuen’ eta *gunun* ‘genuen’ forma asimilatuak Sunbillan, Donezteben eta Donamarian ere bildu ditugu. Erran beharra da, halarik ere, herri guzietan ez dugula erabileraren maila bera sumatu: (i) Bortzerrietan aukera nagusiak dira, (ii) Sunbillan ohikoak ditugu eta (iii) Doneztebe-Donamarian batzuetan soilik agertzen dira. Guk dakigula behintzat, bi adizki hauek ez dira bertze inon erabiltzen. Nafarroako mintzorik gehienetako *ziñun* eta *giñun* Donezteben eta Donamarian gailen dira eta, Baztanen, Bertizaranan eta Malerreka gainerako herrietan aukera bakarrak ditugu.

Gazteek gutxiago erabiltzen dituzte *gunun* adizkiaren sailekoak. Egoera formalagoetan eta erdialdeko euskarari adizki hori erabiltzeko joera ez dagoenez, *gununen* sailekoak gordetzailenek bakarrik erabiltzen dituztela uste dugu. Hala ikusi dugu gure corpusean ere, gazteek ez dutelako adibide bakarrik eman. Dena den, askok, gazteek batez ere, ez dutela adibiderik eman esan behar da. Gazteetan *gunun* erabili duen bakarra neska bat izan da, herritarren eta baserritarren hizkeraren artean diferentziarik badagoen galdetu diogunean. Ikusten denez, bere erabilera azaldu du, baina ez dugu hizketa naturaleko adibiderik topatu:

(21) Igual, GIÑUN (...). Pues, lehengon mendira yon giñan ta... nik zer dikit, ikusi GIÑUN. Launakin GIÑUN sango nuke. Miño, itxen, GUNUN. Ta ordun, holako hitzak. Oan eztkit beste adibideik hola sateko, miño... horik behintzat bai.

Adinekoen artean, biak erabiltzen dira. Gure corpusean, bederen, hala erabili dute. Eta adibide bila ari ginela, ondorioetan sartu beharreko ideia honekin egin dugu topo: badirudi adinekoen multzoan sartu ditugun 60 urte ingurukoak 80 urtetik goitikoetatik asko aldentzen direla hizkuntza-aldagai batzuen erabileran. Adinekoen multzoan sartu ditugu 60-65 urte bitarteko 4 hiztun eta 80tik goitiko 6 eta beraien artean diferentzia nabaria da hizkuntza-aldagai honetan ere: zaharrenek ia beti *gunun* adizkiaren sailekoak erabili dituzte eta gazteenek ia beti *giñunen* sailekoak. Beraz,

*giñun* adizkiekiko joera 60-65 urte dituztenen belaunaldian hasia dago Goizuetan, eta hori topatu dugu adin horretako emakume eta gizon banaren adibideotan:

(22) Hamasei do hola izango, hamazazpi do hola izango nittun, miño ordun itxera yoteko zaten GIÑUN ordua illundu ta belexen. Miño ordun in tzen bastante berandua ta permisoa re eskatzeko nun ta. Guk uste GUNUN bueno, tenore politteko etorko giñala biño, beranduxio torri giñan ta gero hori pasatu zen.

(23) Bai, gure, guk dena eskuaraz itten GUNUN, hitz guzia eskuaraz. Eta bueno, gure itxen, bueno, nik ez nun sumatzen, hola... Zen, beharbada, ez GIÑUN tema profundok ukitzen zango, ta hola, miño etzen izaten hola haserre nabariikan).

#### 4.2.16. *Pa(ra)tu/jarri*

Bikote honetan ere, lehena nafarrerako ezaugarria da eta bigarrena erdialdeko euskarari nahiz euskara batuan topa dezakegu, besteak beste. Goizuetan *patu* (<*paratu*) erabiltzen da euskara batuan *jarri* aditzak duen esanahiarekin (erdaraz, *poner*), baina gauzen kasuan bakarrik. Alegia, pertsona bat ezin da «*gaizki patu*», «*gaizki jarri*» baizik. Gainerakoan, *patu* erabili ohi da (*mahaia patu*), baina kanpokoekin hizkera alda dezakete; izan ere, goizuetarrek badakite kanpoan ez dutela erabiltzen eta, seguraski, hitz markatutzat dute. Mutil gazte honek dioena argigarria da, gipuzkoarrak solaskide dituen adibide honetan:

(24) Adibidez guk esaten du «/X/ARRI»ri «PATU», saten du, «PATU». Ta gañeko toki guzitan... Nik Hernanin san izandu dut: «hi, PATU, PAzak hor hori!» o «PATU, PAzak hor». Ta haiek enteintzen dute «pagatu». Eta gelditzen tza hor «ez, ez, ez, pagatu ez, /X/ARRI, /X/ARRI!». Ta pixkot gelditzen tza zea (...). Ez, behin miño gehiotan «PATU hor» ta, «Patu, ze pagatu?» ta, «Ez, ez, ez, /X/ARRI, /X/ARRI, hor PATU!». Pues bueno, pasatu itten tza, hurrena saten dize /X/ARRI ta enteintzen do.

#### 4.2.17. *Zerbette/zeoze*

Aldagai honetan ere, aurrenekoa, *zerbette* (edo *zerbitte*), goizuetartzat dugu. *Zeoze*, erdialdeko euskarari eta mendebalekoan erabiltzen dena (Zuazo, 1998: 204), gero eta gehiago erabiltzen da gazteen artean. Biak erabiltzen dituen mutiko honen adibidea bildu dugu, teknologia berriak erabiltzen dituen galdetu diogunean:

(25) Ez aspertzeko do, beste ZERBETTE itteatik. Biño gabe re igual-igual eongo nitzake (...). Mobillana, zailtxio iual ingo liake, miño eon izandu naiz (...). Aspertua ta, ño! Baten bateri adarra yoko nike oantxe ta ZEOZE ta. Biño hola, beharra-beharra, ez.

### 5. **EMAITZAK**


Atal honetan hizkuntza-aldagaiek gure corpusean izan duten banaketa azalduko da. Banaketa hori aztergai diren gizarte-eragileen arabera aurkeztuko da, eta gizarte-eragileka, espero ziren joerak bete diren ikusiko da.



### 5.1. Adina

Emaitzetan ikusi dugu adinak eragin handia duela hizkuntza-aldagaien aukeran. Gazteek eta adinekoek erabili dituzten hizkuntza-aldaerak aztertuta, adina erabilera horrekin lotua agertu da. Hau da, gure hipotesia bete da eta bertako aldaera edo aldaera zaharrena adinekoek gazteek baino gehiagotan erabili dute. Oroitu *-ikan* aldaeraren kasua berezia dela: bertako aldaeratzat eta, aldi berean, berriekotzat jo dugu (eta espero genuen bezala, gazteek erabili dute gehiagotan).

Emaitza horiek denak ez dira estatistikoki adierazgarriak, ordea; 17 aldagaietatik 7 dira adierazgarri: *aferesia*, *-en*, *izan*, *-koz*, *arrunt*, *patu* eta *zerbette*. Estatistikoki adierazgarri diren edo ez aztertzeko «hiztuna» gizarte-eragilea hartu dugu aintzat, eta horrela ez dira gazte guztien eta adineko guztien erabilerak batera aztertzen, kasu honetan hiztun bakoitzaren emaitzei begiratzen zaie, eta hiztun guztiek espero den joera bete behar dute.




1. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera.

### 5.2. Generoa

Generoa aztertuta, ez da estatistikoki adierazgarri den emaitzik agertu. Are gehiago, generoan ez dugu joera bateraturik ikusi. Adinarekin gurutzatuta, ordea, argiago nabaritu ditugu joerak eta elkarrekin aztertu ditugu bi gizarte-eragile hauek. Adinaren eragina xeheago ikusten da gure lagineko adinekoak bi multzotan banatuta, 60tik 65era bitartekoak batetik, eta 80tik 90era bitartekoak bestetik, eta hala adierazi dugu irudietan (grafikoetan «adineko emakumea» eta «adineko gizona» izena jarri diegu 80-90 bitartekoei). Hala ere, generoa adinarekin gurutzatuta, emaitzak ez dira estatistikoki adierazgarriak izan.


Emaitza horiek hiru multzotan banatu ditugu, berrikuntzaren egilea nor den —gizonezkoa edo emakumezkoa, gaztea edo adinekoa— kontuan hartuta. Gure

corpusaren arabera, aldaketa batzuk adineko gizonezkoek hasi zituztela dirudi. Hori ikusi dugu *aferesia*, *arrunt*, *gunun*, *zerbette* eta *-ikan* hizkuntza-aldaeren kasuan. *Zerbette* aldaeran aldaketa beranduxeago hasi zela ematen du, 60-65 urte bitarteko gizonezkoek erakutsi baitute aldaketa nabaria haren erabileran. *-ikan* aldaeraren kasuan, oroitu alderantzizko joera espero dugula, eta adineko gizonezkoek adineko emakumezkoek baino gehiagotan erabili dute. Joeren aldaketa non hasten den errazago ikusteko horiz markatu dugu zutabea:




2. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera. Gizonezkoek hasitako aldaketak.

Bestetik, beste aldaketa batzuk adineko emakumezkoek (65etik goitikoek) hasi zituztela dirudi. *-en*, *-koz*, *benpe* aldaerak adineko emakumezkoek gutxiagotan erabili dituzte adineko gizonezkoek baino.



3. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera. Emakumezkoek hasitako aldaketak.


Azkenik, neska gazteek gutxiagotan erabili dituzten aldaerak ditugu: *bakotxa*, *biño*, *deus* eta *eztikit*. Dena den, esan behar da erabilera hori, gehienetan, hiztun berberak egin duela, ikasketa-maila altuko neska batek hain zuzen. Horrek emaitza orokorrean eragin handia izan du, eta normala da emaitza horiek estatistikoki adierazgarri ez izatea. Hain zuzen ere, honelako emaitza engainagarriak argitzen laguntzen digu estatistikak.



**4. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaren erabilera generoaren arabera. Neska gazteek hasitako aldaketak.**

**5.3. Ikasketa-maila**


Ikasketa-mailak aldaeren erabileran eragin handia izan duela ikusi dugu gure corpusean. 17 aldagaietatik 10etan espero zen aldaketa agertu da, hau da, ikasketa-maila altukoek bertako aldaerak gutxiagotan erabili dituzte, 4. grafikoan ikusten den bezala. Estatistikoki adierazgarriak lau aldaeren emaitzak izan dira: aferesia, *-en*, *izan* eta *-koz*.



**5. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaren erabilera ikasketa-mailaren arabera.**

**5.4. Erdialdeko euskaldunekin harreman-maila**

Gizarte-eragile honek eragin handia izan du aldagaien erabileran: 17 aldagaietatik 14tan espero zen joera ikusi dugu. Estatistikoki adierazgarriak lau dira, ordea: aferesia, *izan*, *-koz*, *patu*.



6. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaeren erabilera erdialdeko euskaldunekin duten harremanaren arabera.


## 6. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO LANAK

Ikerketa-lan honetan orain arte egindakoaren ondorioak hiru multzotan bildu ditugu.

### 6.1. Hizkuntza-aldagaietako ondorioak


Atal honetan, hizkuntza-aldagai bakoitzaren aldaketaz ariko gara. Zenbat ari da aldatzen hizkuntza-aldagai bakoitza Goizuetan? Abiadura handiko aldaketa da edo motel doana? Edo ez dago batere aldaketarik? Azken batean, adinaren arabera aldaketa aztertuko dugu hemen.

Galdera horiek erantzun argia dute: bai, hizkuntza aldatzen ari da Goizuetan, aztertutako hizkuntza-aldagai gehienetan ikus daiteke hori. Gure grabazioetako emaitzek erakusten dute gazteek gutxiagotan erabiltzen dutela bertako aldaera adinekoek baino. *-ikan* da salbuespena, bertako ezaugarritzat jo dugun arren, gazteak baitira gehiagotan erabili dutenak. Hona hemen hiztun guzien hizkuntza-aldagaien maiztasunak ehunekotan erakusten dituen irudia:



7. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaren erabilera adinaren arabera (II).

Adina hiru multzotan zatituz gero (80tik goitikoak, 60-65 bitartekoak eta 20-35 bitartekoak) emaitzak xeheago ikus daitezke:



8. irudia. Goizuetako hizkuntza-aldaren erabilera adinaren arabera, adina hiru multzotan banatuta.

Bigarren ondorioa da hizkuntza-aldagai batzuk besteak baino azkarrago ari direla aldatzen. 7. eta 8. irudietan erritmo horren arabera antolatu ditugu bertako hizkuntza-aldaerak. Goialdean daudenak oso gutxi ari dira aldatzen: *-ikan*, *deus*, *biño*, */j/* eta *edun* aldagaiez ari gara. Erdikoetan diferentzia gehiago dago adinekoen erabileratik gazteen erabilerara eta, zenbat eta beherago, orduan eta erabilera apalagoa ikusten da gazteengan, batzuetan desagertzera. Hori da *-koz*, *gunun* eta *eskuara* aldaeren sailekoekin gertatu dena, gure corpusean bederen. *Arrunt* eta *benpe/bede* aldaerak ere oso gutxitan erabili dituzte gazteek.

Aldaketa hizkuntza-aldagai guztietan sumatzen bada ere, esan behar da estatistikoki adierazgarriak zazpi bakarrik direla: aferesia, *-en*, *izan*, *-koz*, *arrunt*, *patu* eta *zerbette*. Zergatik gertatzen den hori? Goiko grafikoetan irudikatu duguna hiztun guztien adibideak gehituta atera ditugun ehunekoak dira, kontuan hartu gabe hiztun bakoitzak hizkuntza-aldagaiak nola erabiltzen dituen. Hau da, hiztunaren barne-aldakortasuna aintzat hartu gabe. Horrela eginda, adibidez, ondokoa gerta daiteke: gazte batek *zerbette* ez du inoiz erabili, beti *zeoze*, eta askotan. Orduan, nahiz eta gainerako gazteek *zerbette* erabili gehienetan, batuketa eginda, *zerbette* gutxitan ager daiteke eta *zeoze* gehiagotan. Gazte bakar batek eragindako emaitza denez, estatistikak esaten digu emaitza ez dela adierazgarria, ez dela gazte izateagatik sortu den joera bat. Horregatik da garrantzitsua estatistikaren erabilera hizkuntza-aldagaien joerak zuzen antzemateko.

Zergatik ari dira batzuk azkar aldatzen eta besteak ez? Gure ustez, lau eragile egon daitezke horren atzean. Batetik, adinekoek ere asko edo gutxi erabiltzen zuten garrantzitsua da. Horrela, adibidez *arrunt*, *gunun* eta *eskuara* hizkuntza-aldaerak dagoeneko adinekoek gutxi erabili dituzte eta are eta gutxiago gazteek. Era berean, *deus*, *biño* eta */j/* asko erabili dituzte adinekoek, eta baita gazteek ere.

Bestetik, hizkuntza-aldaerak euskara batuan edo erdialdekoan duen onarpenak ere eragiten duela uste dugu. Batuan erabiltzen dira *deus*, */j/*, *edun* eta geroaldiko *-en* eta horrek lotura izan dezake gazteek ere maiz erabiltzearekin. Batuan eta erdialdeko euskaran erabiltzen ez direnak dira *-koz*, *gunun*, *eskuara*, *arrunt* eta *bede/benpe*, eta horrek gazteek ere hain gutxi erabiltzea eragin dezakeela uste dugu. *Bakotxa*, *eztikit*, *zerbette* eta aferesia gazteek gutxiago erabili izana ere honekin lotua egon daiteke.

Hirugarrenik, hizkuntza-aldaeraren izaera markatua edo enblematikoa aipatu nahi dugu. Azken hau nahiko puntu subjektiboa dela esan behar da, Goizuetako hiztun bezala intuitiboki sentitzen dudana. Hizkuntza-aldaera markatua bada, Goizuetako hiztunak marka hori zerbait positibo bezala ikusten duela ematen du. Horrela bada, gazteek ere erabiltzeko joera dute. Hala ikusten da gure ustez hiztunak markatutzat dituen aldaera hauekin: *-ikan*, *deus*, *biño*, *patu*, *eztikit*. Joera horren salbuespen gisa *arrunt* aldaera dugu, markatua bada ere gazteek ez dutelako ia erabili. «Negatiboki» markatua dela pentsa daiteke, baina ez dut uste hala denik. Kontuan hartu aurreneko eta bigarren faktoreen bidez, gazteek *arrunt* gutxiago erabiltzea espero dela. Gure ustez horiek dira gazteek *arrunt* gutxiago erabiltzeko arrazoiak.

Hirugarren faktore honetan azaldu dugu markatuak diren hizkuntza-alderei buruzko gure usteak. Markatuak ez diren ezaugarriak, berriz, hiztunak haien berezitasunaren kontzientziarik gabe erabiltzen dituenak dira. Hiztunak haien kontzientziarik ez badu, errazago galtzen direla dirudi. Horrelako ezaugarriak direla uste dugu *izan*, *zerbette* eta *aferesia*, eta hori izan daitekeela ezaugarri horiek gazteek adinekoek baino dezente gutxiago erabiltzeko arrazoietakoa bat.

Azkenik, galdera bat egin nahi dugu: hizkuntza-aldagaien maiztasunak ba al du ikustekorik hizkuntza-aldagai hori aldatzeko abiadurarekin? Badago joera bat hizkuntzaren aldaketa horien maiztasunarekin lotzeko, eta gure corpusean ikusi dugu hizkuntza-aldagai batzuek maiztasun handia zutela, eta besteek gutxiago. Bi taulatan bereizi ditugu, 3. eta 4. tauletan; 200-1.500 agertze bitartekoak batetik, eta 200etik beheetikoak bestetik.

Taula horietan ikusten denaren arabera, espero izatekoa da maiztasun gutxikoak (4. taulakoak) azkarrago aldatzen aritzea eta hala gertatzen ari da hizkuntza-aldagai horietako askorekin. Batzuetan galera oso handia izan da (ikusi 7. eta 8. irudiak), *-koz*, *arrunt*, *benpe*, *gunun* aldaeren kasuan esaterako, eta beste batzuetan ez da hain azkarra; *bakotxa*, *patu*, *zerbette*. Hipotesi hau ez da kasu guztietan betetzen, *deus/oso* maiztasun gutxiko aldagaia izanda ere, *deus* asko erabiltzen jarraitzen dutelako gazteek. Era berean, maiztasun handiko aldaera batzuk (aferesia, geroaldiko *-en*, *eskuara* eta *eztikit*) galtzen ari dira, beharbada goian azaldu ditugun beste arrazoiengatik. Gainera, esan behar da geroaldiak ez duela maiztasun handiko (285 adibide bildu ditugu gure corpusean) eta *eskuara/euskara* eta *eztikit/eztakit*, bereziki maiztasun handikoak ez izateaz gain (357 eta 434 hurrenez hurren), gure elkarriketetatik puztutako kopurua dela pentsa dezakegu; euskarari buruzko galdera asko egin ditugu eta, gainera, galdera ugari egin ditugu (horregatik, beharbada, hainbeste *eztikit/eztakit*). Maiztasunak mantentzearekin zerikusia duela dioen hipotesiaren alde, */j/*, *-ikan* eta *biño* aldaeren erabilera dugu: guztiak askotan erabiltzen dira eta gazteek ere erabiltzen segitzen dute.

Oro har, hizkuntza-aldagaien maiztasunak lotura zuzena du hizkuntza-aldagaien aldaketaren abiadurarekin, gure ustez: orokorrean, hizkuntza-aldagaia zenbat eta gutxiagotan agertu eguneroko mintzoan, errazago izango da aldaera berriak sartzea.

## 6.2. *Gizarte-eragileetako ondorioak*

Hipotesietan espero bezala, oro har esan daiteke gazteek, ikasketa-maila altukoek eta erdialdekoekin harreman-maila altua dutenek erabili dituztela gehien aldaera berriak. Generoan, emaitzak ez dira estatistikoki adierazgarriak izan. Baina generoa adinaren arabera aztertuz gero, joera interesgarri batzuk antzeman ditugu: adineko emakumeak gordetzaileagoak agertu dira hizkuntza-aldagai askotan, emakumezko gazteak aldatzaileago (baina ez denak, eta ez hizkuntza-aldagai guztietan).

### 6.3. Aldaketarekin batera, mantentzea

Oro har, hizkuntza aldatzen ari den arren, aldaera zaharrak ere erabiltzen dituzte gazteek, batzuek adinekoek adina. Gure ustez, herri honetan bertako hizkerarekiko kontzientzia eta leialtasun handia dago. Horretarako arrazoi nagusiak herriaren ezaugarri hauek biltzen dituztela uste dugu: lehenik, oso herri euskalduna dela, euskararen arnaguneetako bat (Bengoetxea, 2012). Euskara bizirik dago eta prestigioduna da Goizuetan. Bigarrenik, bertako hizkera ere prestigioduna da bertan, gazteen artean bereziki. Hirugarrenik, Goizuetak ez du immigraziorik jaso, galera baizik. Horrek bertakoarekiko leialtasun-sentimendua eragin duela uste dugu (Laboven 1972ko Martha's Vineyard lanean antzeko ideia defendatu zuen). Eta azkenik, Goizuetakoa izateak, hiztunen identitateak, hizkerarekin lotura duela ikusten dugu; bertakoa izatearen ezaugarri nabarmena da hizkera. Hala esan digute egindako elkarrizketetan, hiztunek beren hizkera goizuetar izatearekin lotua ikusten dute.

### 6.4. Mugak eta etorkizuneko lanak

Tesi-lanaren puntu honetan, orain arte egindakoa azaldu nahi izan dugu. Eta egindakoaz gain, lanak izan dituen ezinak laburtuko ditugu jarraian. Hasteko, esan behar da hizkuntza-aldagai batzuetan adibide kopurua txikia eta desorekatua dela analisi estatistiko fidagarriak egin ahal izateko (lexikoak batez ere). Horretaz gain, gizarte-eragile batzuk korrelazionatuak daudela dirudi: *adina*, *ikasketa-maila* eta *erdialdeko euskaldunekin harreman-maila* gizarte-eragileen kasua da. Azken batean, gazteek adinekoek baino ikasketa-maila altuagoa dute eta erdialdekoekin harreman gehiago dute.

Bi urteko ikerketa da eta oraindik lan asko dago egiteko. Beste herrietan azterketak egitea da hurrengo pausoa, joera diferenteak ikusteko eta bakoitzaren arrazoietan sakontzeko.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Apalauza, A. (2010): *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*, doktore-tesia (argitaratu gabe), Gasteiz.
- Bengoetxea, X. (2012): "Arnaguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnaguneraren egoeraren behaketa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, **85**, 75-121.
- Field, A.; Miles, J. eta Field, Z. (2012): *Discovering Statistics Using R*, Sage, Londres.
- Haddican, W. F. (2005): *Aspects of Language Variation and Change in Contemporary Basque*, <<https://files.nyu.edu/wfh203/public/dissertation.pdf>> [Kontsulta: 2014-II].
- Fraile, I. eta Fraile, A. (1996): *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala eta Kultura Batzordea, Oiartzun.



- Johnson, D. E. (2009): "Getting off the GoldVarb standard: Introducing for mixed-effects variable rule analysis", *Language and Linguistics Compass*, **3**, 359-383.
- : *Rbrul manual*, <[http://www.danielezrajohanson.com/Rbrul\\_manual.html](http://www.danielezrajohanson.com/Rbrul_manual.html)> [Kontsulta: 2013-II].
- Labov, W. (1972): *Sociolinguistic Patterns*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia.
- Lujanbio, O. (2012): "Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran", *Uztaro*, **80**, 77-97.
- Milroy, L. eta Gordon, M. (2003): *Sociolinguistic method and interpretation*, Blackwell, Oxford.
- Moreno Fernández, F. (1994): "Sociolingüística, estadística e informática", *Lingüística*, **6**, 95-154.
- Tagliamonte, S. A. (2007): *Analysing sociolinguistic variation*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (2012): *Variationist sociolinguistics: change, observation, interpretation*, Wiley-Blackwell, Malden, MA.
- Paolillo, J. C. (2002): *Analyzing linguistic variation. Statistical models and methods*, CSLI Publications, Standford.
- Trudgill, P. (2002): *Sociolinguistic Variation and Change*, Edinburgh University Press, Edinburgo.
- Zelaieta, E. (2008): *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernu, Euskaltzaindia, Iruñea.
- Zuazo, K. (1997): "Oiartzungo hizkeraren kokagunea", *FLV*, **76**, 397-426.
- , (1998): "Euskalkiak, gaur", *FLV*, **78**, 191-233.
- Zubiri, J. J. eta Perurena, P. (1998): *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernu; Goizuetako eta Aranoko Udalak, Iruñea.